

## Mondragon.edu, unibertsitate webgune onenen artean, erabilgarritasunaren ikuspegitik

2007/07/02

Usalo izeneko webguneak dio Mondragon Unibertsitatearen web gunea estatu espainiarreko lau onenen artean dagoela, erabilgarritasunaren ikuspegitik. Ondorio horretara iristeko **73 unibertsitateen web guneak** aztertu ditu, **26 adierazle** aintzat hartuta, denak ere webguneen erabilgarritasunarekin lotuak.

Azterketa 2006ko irailean egin zuen Usalo web guneak, jakiteko estatu espainiarreko unibertsitateen web guneak zenbateraino diseinatu diren **erabiltzailea gogoan hartuta**. Horretarako 26 adierazle erabili dituzte, lau taldetan banatuta:

- Irizpide politikoa diseinuan.
- Irakurgarritasuna.
- Diseinua.
- Laguntza informaziora iristeko.

### Unibertsitate web gunerik onenak

**Mondragon Unibertsitatearekin** batera, beste hiru unibertsitate hauek ere aipatzen ditu azterketak, web gune onenen jabe moduan: Universidad de Córdoba, Universidad de Santiago eta Universidad Francisco de Vitoria.

### Erabilgarritasuna

Jakob Nielsen adituaren iritziz, web gune baten kalitate-ezaugarria erabilgarritasuna da; erabilgarritasuna izango da web gunearen interfazea erabiltzeko erraztasuna.

Vocento Media Trader eta CodeSyntax enpresek egin dute Mondragon Unibertsitatearen web gunea **elkarlanean**.

